

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 66. alearen harrapaketaekin bukatu da gaur goizean Nafarroan izokinak arrantzatze denboraldia

*Kanpainak uztailaren 31rako aurreikusia zuen itxiera aurreratu da ezarritako kupoarekin*

Osteguna, 2018.eko uztailak 12

Gaur goizean harrapatu dute Bidasoa ibaian aurtengo izokinen arrantza-garaiko 66. alea, denboraldi honetarako ezarrita zegoen kupoarekin, eta izokinen harrapaketa erraztu duten baldintza meteorologikoak tarteko izan dituen 2018ko izokinen arrantza-denboraldiari bukaera emanez.



Gaur goizean harrapatutako 66. izokina.

Azken izokin hau jatorri basatiko eta negu bakarreko alea izan da, 1,77 kiloko pisua eta 602 milimetroko luzera zituena, eta koilaratxoaz harrapatu du Montoia aldean Hernaniko (Gipuzkoa) Alberto Bartolomé arrantzaleak.

2017an, 78 izokineko kupoarekin, azken alea uztailaren 31n arrantzatu zen.

Araudiaren arabera, aurtengo denboraldia uztailaren 3an bukatu behar zen, aurretik zehaztutako izokin kopurua (66) harrapatzerik lortu ez balitz ere. Arrantzatzekeo garaia behar baino lehenago ixtearen arrazoia, Ingurumeneko teknarien esanetan, estu-estu lotuta egon liteke aurten izan dugun ezohiko udaberri euritsuarekin eta honek eragindako uholdeekin, zeinek, ibai-bokaletarako sarbidea erraztu baitie izokinei, ibaietan gora erruteko leku egokien bila egin ohi duten zeharkaldian.



Alberto Bartolomé eta haren alaba Afrika Bartolomé López, 66. izokina dutela.

Aurten, izokina arrantzatzekeo garaia normalean baino lehenago hasi da, apirilaren 15ean alegia, eta lehendabiziko aldiz, amurraina harrapatzekeo erabiltzen den baimen-sistemaren antzekoa ezarri da berritasun gisa.

Berako Xabier Lanz arrantzaleak harrapatu zuen apirilaren 18an denboraldi honetako lehenbiziko izokina, Enderlatsa aldeko Las Nazas putzuan. Aleak mikromarka zeraman eta 4,750 kiloko pisua, 775 milimetroko luzera eta 150 milimetroko altuera zituen. Harrapatu zuten unean, 3 urte zituen (urte bat ibaian eta bi urte itsasoak). Sexua hartutako ehun-laginaren analisiak zehaztuko du, baina emea zela irudi du.

### **Aurtengo denboraldiaren balantzea**

Arrantzuriko 66 izokinen artean, 55 negu anitzeko aleak dira eta 15 negu bakarrekoak, 4,18 kiloko batez besteko pisuarekin eta 733 milimetroko batez besteko luzerarekin. Alerik handienak 7,63 kiloko pisua eta 930 milimetroko luzera izan ditu, eta txikienak 1,60 kilo eta 540 milimetro. Harrapatutako ale guztien artean, 30 Mugairiko arrain-haztegiko izokinak ziren, hots, arrain guztien % 45 (horietatik 19k hegal adiposoaren ablazioa zuten eta beste 11k mikromarka zuten).

Gehienak izkiraz arrantzatu ziren (26) edo izkira eta zizareaz (6), eta gainerakoak, garrantzi-hurrenkeraren arabera, euliaz (19), zizareaz (7), koilaratxoaz (5) eta ninfaz (3). Apirilean 3 ale harrapatu zituzten, 12 maiatzean, 39 ekainean eta gainerako 12ak uztailaren 1etik 12ra bitartean.

Guztira, 34 arrantzalek lortu dute izokinen bat harrapatzea. Ale kopururik handiena arrantzatu duena David Miranda izan da: 6 izokin, guztira. Arrantzale gehienak nafarrak ziren, eta ondotik gipuzkoarrak.

2018ko denboraldian, iaz aplikaturiko arrantza iraunkorreko sistema bera mantendu da. Honen bitartez, Nafarroako Gobernuak arrantzan harrapa daitezkeen espezieen bideragarritasuna segurtatu eta jarduera honetaz gozatzeko aukera bermatu nahi die baimena duten arrantzaleei.